

# EXISTENTZIA ETA ERRESISTENTZIA: 50 URTE SAHARAR ESTATUA ERAIKITZEN

Mendebaldeko Sahara 1884tik aurrera kolonizatu zuen Espainiak. 1975eko azaroaren 6an, Francisco Franco diktadorearen agoniaren testuinguruan eta Espainiaren konplizitatearekin, Marokok "Martxa Berdea" ("Martxa Beltza", sahararrek berrizendatua) bultzatu zuen, lurraldearen okupazioari hasiera emanez eta saharar herriaren exodoa eraginez. Egun batzuk geroago, Espainiak legez kanpoko Madrilgo Hiruko Akordioak sinatu zituen, lurraldea utzi eta administrazioa Maroko eta Mauritaniaren esku utziz.

Berrogeita hamar urte geroago, Mendebaldeko Sahara deskolonizatzeko dagoen Lurralde Ez Autonomoa da oraindik. Espainiaren, NBEren eta nazioarteko komunitatearen borondate faltak saharar herriaren autodeterminazio eskubidea gauzatzea eragotzi du, okupazioak eta bere baliabideen espoliazioak jarraitzen duten bitartean.

Geldialdi horrek legez kanpoko okupazioan, behartutako erbestean eta giza eskubideen urraketan oinarritutako sistema koloniala finkatzen du. Espainiako Gobernuaren azken jarrera-aldaketak egoera are gehiago larriagotu du. Saharar herria ez ezik, justiziaren, nazioarteko legezatasunaren eta deskolonizazioaren printzipioak ere traizionatu zituen.

Alternatibatik, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) aldarrikapenaren 50. urteurrena dela eta, eta Saharar Errefuxiatuen Kanpamenduetara egin dugun bisitarekin, Fronte Polisarioak saharar herriaren ordezkari legitimo bakar gisa egiten duen lanarekin dugun konpromiso politikoa berresten dugu, eta saharar biztanleekiko eta haien bidezko kausarekiko elkartasuna adierazten dugu. Horregatik:

AITORTZEN DUGU:

- **Saharar herriak autodeterminazio-erreferendum baten bidez bere etorkizuna askatasunez erabakitzeko duen eskubidea**, NBEren ebazpenek ezartzen duten bezala, eta horren adierazpen nagusia Afrikako Batasuneko eskubide osoko kide den Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapena izan zen.
- **Fronte Polisarioaren lan politikoa**, sahararren ordezkari legitimo bakarra den aldetik, eta saharar herriaren erresistentziarako eta borrokarako eskubidea, independentziaren, lurralde osotasunaren eta kolonia eta atzerri-menderatzearen amaieraren alde.

- Gaur egun expoliatzen eta haien baimenik gabe nazioarteko merkataritza hitzarmenetan sartzen diren **saharar herriaren baliadideen gaineko subiranotasuna**.
- **SEADek lortutako aurrerapenak eta lorpenak**, baldintza zailak izan arren, ongizatean, segurtasunean eta parte-hartze demokratikoan, bereziki hezkuntza eta osasun arloetan.

#### SALATZEN DUGU:

- **Espainiako Estatuak Mendebaldeko Saharako lurraldearen potentzia administratzaile gisa duen erantzukizuna bertan behera uztea**. Deskolonizazioa betebeharrak moral eta politikoa da, eta ezin du saihestu.
- **Marokok hamarkadetan egiten duen okupazio-erregimena**, sahararren errepresioan eta haien baliabide naturalen espolioan oinarrituta.
- **Lurralde okupatuetan sahararren aurka etengabe giza eskubideak urratzea**, eta preso politiko sahararrak Marokoko kartzeletan mantentzeko baldintzak.
- **Enpresak, erakundeak eta estatuak Mendebaldeko Saharako lurraldearen okupazioarekin konplizitate izatea**, eta horiek onura ekonomikoa jasotzea sahararren baliabide naturalak espoliatzeagatik.

#### GURE BABESA ERAKUSTEN DUGU:

- **Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsona eta erakunde guztiei**, baldin eta, okupazioaren eta errepresioaren testuinguruan, giza eskubideak benetan baliatzeko lan nekazina egiten badute.
- Marokoko espetxeetan giza eskubideen urraketa sistematikoa jasan duten **preso politiko sahararrei eta haien senideei**.
- **Emakume sahararrak**, kanpamenduetako bizitzari eta antolaketari eusten dioten ardatz nagusi gisa, eta lurralde okupatuetako indarkeriaren eta errepresioaren aurkako borroka.
- Irmo eusten dioten eta beren lurraldera eta arbasoen lurraldera itzultzeko konpromisoari eusten dioten **gazte sahararrei**, beren patuaren jabe izateko eta etorkizun hobea eraikitzeko.